




# FAMILIEN KONFIANTZA

## EAEko familiak gero eta baikorragoak dira

### EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2024ko 1. HIRUHILEKOA

- 5




Laboral Kutxak argitaratu duen adierazlearen arabera, urte honen hasieran EAEko familiak konfiantza hobetu zuten aurreko aldietako baliokin alderatuta. Hori horrela izanda, indizea -5ean dago kokatuta orain, hau da, azken zortzi hiruhilekoetan erakutsi duen mailarik baikorrenean. Aurreko aldiarekiko hobekuntza lau puntukoa da. Hala ere, ezkortasun txiki bat hautematen da oraindik.

Inguruko herrialdeetako egoerarekiko alderaketak adierazten du herrialde horietan ere hobetzeko joera txiki bat ikusten dela, nahiz eta oraindik tonu negatiboa nagusitzen den. Inflazio handia, interes tasa altuak eta arazo geopolitikoak dira sentimendu ezkor hori justifikatzen duten arrazoi batzuk. Europar Batasuneko indizea -16koa da eta Espainiakoa, berriz, -17koa.

### FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


	2022	2023	2022		2023			2024
			IV	I	II	III	IV	I
<b>Euskadi</b>	<b>-11</b>	<b>-9</b>	<b>-23</b>	<b>-9</b>	<b>-7</b>	<b>-13</b>	<b>-9</b>	<b>-5</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>-23</b>	<b>-19</b>	<b>-26</b>	<b>-21</b>	<b>-18</b>	<b>-17</b>	<b>-18</b>	<b>-16</b>
Frantzia	-18	-17	-20	-21	-17	-15	-15	-13
Alemania	-20	-15	-25	-17	-13	-15	-16	-15
Espainia	-26	-19	-28	-23	-19	-13	-20	-17

## EKONOMIA OROKORRA




Konfiantza indizearen osagai guztiek emaitza hobetu dute aurreko datuarekin alderatuta. Alde batetik, ekonomia orokorraren balorazioak hiru puntu egin du gora, baina ezkortasun irudi garrantzitsua erakusten du oraindik (-18). Bestalde, familiaren ekonomiari buruzko pertzepzioak lau puntu egin du gora eta eremu neutrorra hurbildu da (-5). Halaber, azken hamar hiruhilekoetako emaitzarik onena da.

## FAMILIAREN EKONOMIA




Baikortasuna langabeziari buruzko iritzietara itzuli da, eremu positibora igaro baitira (+2) eta daturik onena utzi baitute zazpi hiruhilekotan. Familien ia %30ek uste du langabezia murriztu egingo dela etorkizun hurbilean, eta %24k kontrakoa uste du. Azkenik, aurrezkiari buruzko igurikimenak puntu neutroan daude, eta familien bi herenek erantzun dute azken hamabi hila-beteetan aurrezteko gai izan zirela.

## LANGABEZIAREN BILAKAERA



## AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.